



Ospakizunak Usansolon, 2022ko azaroaren 23an, Bizkaiko Batzar Nagusiek desanexioaren aldeko botoa eman ondoren. MARISOL RAMIREZ / FOKU

# BIZKAIKO HITZA

## Izenetik izanera bidean

Usansolok oraindik bidea egin behar du independentea izateko. Udalerria hutsetik sortzen ari dira, Galdakaorekin elkarlanean. Lortutakoa ospatzeko jaia egingo dute bihar. 2-3



**Marta Macho Stadler:** «Saldu digute zientzia jenioen kontua dela, baina nahikoa da seriotasuna»

BERBETAN, 4-5

Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen **elikadura eskubidea** landu dute Urduñan

ELIKADURA, 8

# Udal berria herri zahar baterako

Batzar Nagusiek Usansolo udalerrri independente bilakatzea onartu zuten 2022an. Orain, herria eraikitzen dabilta usansolotarrak. Bide luzea dute egiteko, baina bihar jai batekin ospatuko dute lortutakoa.



## Markos Tedin-Uriburu Castro

Usansolo ez zen sortu 2022ko azaroan, Bizkaiko Batzar Nagusiek segregazioa onartu zutenean. Usansolo ez zen sortu 2022ko martxoan, herritarrek udalerrriaren independentziaren alde bozkatu zutenean, %81eko emaitza eztabaida ezina lortu zutenean. Usansolo udalerrri independente izateko nahia aurretik dator. Horren erakusle dira 1987an eta 2014an egindako herri galdeketa. Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaera onartu zuten arren, Usansolo iazko abenduaren 28an bilakatu zen administratiboki Bizkaiko 113. udalerrria, Espainiako Gobernuak tokiko erakundeen erregistroan sartu zuenean. Azken oztopo hori gaindituta, usansolotarrak lan handia egiten ari dira egun hartatik hona, herria udalerrri independente izan dadin. Lortutakoa bihar ospatuko dute, jai batekin.

Usansolotarrak usansolotarrak izan dira betidanik; hala azaldu du bertako herritar Ixaso Mimenzak: «Usansoloko herritar moduan sentitzen ginen jada». Nortasunari izaera ofiziala emateko —hau da, herri independente baten herritarrek direla egiaztatze—, instituzioen onarpena behar zuten. Helburua eskuratu, usansolotarrak bide luzea dute aurretik oraindik. Udalerrri

eraginkor eta independente bat eraikitzeak lan handia eskatzen du, eta hori ondo dakite horretaz arduratzen ari direnak. Aurrerapausoak ematen ari dira, «astiro, baina tinko».

Usansoloko Kudeaketa Batzorde berria iazko urriaren 5ean jarri zuten martxan, eta ordutik udal batek dituen funtzioak betetzen ditu. Usansolo Herria plataformako Agustin Aizpuru aukeratu izateko, eta esan du prozesuan aurrera egiten ari direla: «Segregazioaren prozesu administratiboa amaitu da, eta orain beste egoera batean gaude. Hau da, benetako segregazioa egiten ari gara Galdakaorekin: gai ekonomikoak, zerbitzuak... adosten». Prozesuak pauso asko izango ditu, eta lehenengoetako bat da udala eta udaletxea izatea: «Udala egin behar da, bai administratiboki, bai fisikoki —udaletxea—. Horretarako, lokal batzuk behar ditugu. Orain horiek bilatzen ari gara; behintzat, lanean hasteko. Lan handia da».

Aizpuru zehaztu du prozesuko lehenengo pausoa IFZ zenbakia sortzea izan zela, identifikazio fiskala, hori barik ezin delako ezer erosi edo fakturarik egin. Horrez gain, Usansolok bere errolda izan dezan lanean ari direla aipatu du batzordeko presidentea.

Usansolotarren herri indepen-



dente bat eraikitzeke nahia; hala ere, ez da nahikoa izango udalerrria martxan jartzeko. Galdakaoko Udalaren laguntza beharko dute segregazioaren prozesuarekin jarraitzeko, Aizpuru azaldu duenez: «Galdakaoko Udalarekin akordioak egiten ari gara. Hark eman behar dizkigu zerbitzuak, guk oraindik ezin ditugulako kontratatu; ez daukagu langilerik, ez ezer». Batzordeko presidentea jakinarazi du aurrekontu bat egiten ari direla orain arte lortu duten diruarekin, «Galdakaoko Udalari zerbitzuak ordaintzeko». Oraindik ere, Galdakaoko

Udala arduratzen da Usansolon ematen diren zerbitzuez. Aizpuru adierazi du euren helburua dela udalerrriak gero eta eskumen gehiago hartzea: «Guk orain egin behar dugu lan, bai administratiboki, bai fisikoki; zenbat eta lan gehiago egin, udalak orduan eta eskumen gehiago hartuko ditu. Orain Galdakaoko Udalak kudeatzen ditu zerbitzuak, baina guk astiro-astiro hartu behar ditugu, gure kontura». Batzordeko presidentea azpimarratu du lana «astiro eta pazientziarekin» egin behar dutela, baina ohartarazi du ez dagoela soilik usansolota-



«Segregazioaren prozesu administratiboa amaitu da, eta orain benetako segregazioa egiten ari gara Galdakaorekin»

«Gu lanean gabilta, baina gure lana orain administratiboa da, eta hori ez da ikusten kalean oraindik»

**AGUSTIN AIZPURU**

Kudeaketa Batzordeko presidentea

rren esku: «Horrelako gauzak ez dira egiten alde batetik bakarrik: Bizkaiko Foru Aldundiaren lana behar dugu, Galdakaoko Udalaren lana behar dugu, bilerak egin behar ditugu, koordinatu... Askotan plangintza egiten dugu, baina azkenean plangintza hori pikutara joan daiteke».

Bilboko Metroaren 5. lineari dagokionez, Aizpuru ziurtatu du ospitaleak geltoki bat izango duela: «Usansolora helduko da metroa. Gauza bat argi eta garbi daukagu: ospitalera gutxienez etorriko da metroa. Ospitalean lotura bat egongo da Usansolore-



### 1 | OSPAKIZUNAK

Usansolotarrak segregazioa ospatzen, 2022ko azaroan, Gernika-Lumon. MARISOL RAMIREZ/FOKU

### 2 | AKORDIOA

EH Bildu eta Usansolo Herriako kideak, Galdakaoko Udalan desanexio prozesua abiatzea adostu zutenean, 2020an. GALDAKAKO UDALA

### 3 | MOBILIZAZIOAK

Segregazioaren aldeko elkarretaratzea, Bilbon, 2022an. OSKAR MATXIN EDESA/FOKU

### 4 | BOZKETA

Segregazioaren aldeko herri galdeketa, 2014an, Usansolon. MARISOL RAMIREZ/FOKU



kin, eta ate bat, metrora sartzeko». Dena den, adierazi du euren nahia dela Usansoloko erdiguneak beste geltoki bat edukitzea: «Guk espero dugu geltoki bat egotea Usansolon bertan; hori da gure nahia, eta bide onetik doa. Denok nahi dugu Usansolok geltoki bat edukitzea».

#### Luzerako daukan bide bat

Batzordeko presidentek argi du segregazioaren prozesua ondo osatzeko denbora beharko dutela: «Segregazioa astiro-astiro egin behar da, presa barik, akordioak ondo ixten eta aurrera egiten pausoka-pausoka. Hau denbora luzerako lan bat izango da; ez da egiten urte batean edo bitan».

Onartu du legez udalerririk ez dela aldaketa handirik egon: «Kalean oraindik ez da igartzen independentzia, jendeak ez du fisikoki ezer igartzen. Gu lanean gabiltza, baina gure lana orain administratiboa da, eta hori ez da nabaritzen kalean oraindik». Hala ere, oso pozik azaldu da, eta aurreratu du lehenengo berritasuna udalaren webgunea izango dela. «Egun gutxi barru jarriko dugu martxan; hori izango da jendeak gauzatxo bat ikusteko. Webgunera sartuko denak ikusiko ditu herriko argazkiak, udaletik emango ditugun zerbitzuak, osoko bilkuretan nortzuk egongo diren, eta gauzak fisikoki

ikusten hasiko da. Hori berezia izango da jendearentzat, ikusiko duelako gauzak egiten ari garela». Webguneak kudeaketa batzordearekin harremanetan jartzeko aukera emango die herritarrei.

Dena den, usansolotarrak ez dute espero aldaketa nabarmenik epe laburrean. Unai Gomez herritarrek ez du uste egoera askorik aldatu denik hilabete hauetan: «Egia esan, herrian aldaketa handirik ez dut nabaritu. Suposatzen dut oraindik denboratxo bat itxaron beharko dela berritasunak egoteko, eta apurka-apurka joango direla ikusten». Beste herritar batzuk bezala, Gomez ziur dago prozesuaz arduratzen direnek «gardentasunez jokatzeko badute» Usansolo hobetu egingo dela «independentziari esker».

Mimenzak badaki segregazioa «hutsetik abiatzen den prozesu bat» dela, eta eremu instituzionalan gauza asko daudela sortzeko. Datozen lau urteetarako zera nahiko luke, Usansolo herri independente bat izatearen aldeko borrokan jarritako ahaleginak herria eraikitzeke balio izatea:

«Espero dut jendeak buru-belarri jarraitzea eraiki nahi dugun Usansolo denon artean egiten».

Bihar, herritar guztiak gonbidatuta daude Usansoloko Kudeaketa Batzordeak antolatu duen jaira. Egun osoko egitaraua prestatu dute, 11:00etatik aurrera. Gaue-ra arte, ekitaldia, kalejira, herri

bazkaria eta erromeria izango dituzte, besteak beste. «Segregazioaren jai egingo dugu», esan du Aizpuruk: «Ofizialki udalerririk izateko prozesua amaitu dugu, eta lagundu diguten jendearekin eta alderdi politikoekin jai bat egin nahi dugu. Ospatzeko eta eskerak emateko eguna da». ●

 **Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

*Euskadi, auzolana*



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Amaia Igartua Aristondo

LEIOA— Kooperazioan oinarritutakoa izan behar luke zientziak, eta zirrara eragilea dibulgazioak: hala uste du Marta Macho Stadler EHUko Matematika saileko irakasle eta dibulgatzaileak (Bilbo, 1962). Eta biek ala biek erreparatu behar diote bazterrekoari. Duela hamar urtetik, EHUren *Mujeres con Ciencia* bloga koordinatzen du Macho Stadlerrek, non emakume zientzialariak eta haien ekarpenak helarazten dituzten. Bizkaiko Foru Aldundiak berdintasunaren aldeko proiektuaren Zirgari saria eman dio egitasmoari.

**Nola jaso duzu foru aldundiaren Zirgari saria?**

Oso sari simbolikoa da. Eta, hain justu, zirgariaren moduko jendeaz hitz egiten du blogak: zientzian aritu baina trukean saririk jasotzen ez zuten emakumeek. Emakume askok bazterretan egin izan dute behar, haien kontuak ez baitziren interesgarritzat jotzen.

**Bigarren mailako beharrak egiten zituzten kasu askotan?**

Bigarren mailakoak, eta, batzuetan, gizonen berberak, baina soldata murriztagoa jasota, emakumeak izateagatik. Emakume zientzialarien ibilbidea, aitzindariena batik bat, ikusezina da, eta izugarritzko esfortzua egin zuten zientziaren munduan tokia egiteko, ez baitzituzten han nahi.

***Mujeres con Ciencia* bloga 2014an hasi zineten elikatzen.**

EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren arduradun Juan Ignacio Perez nirekin jarri zen harremanetan, galdetzeko ea egingarri ikusten nuen emakume zientzialarien inguruko blog bat egitea —ordurako, katedrak bazituen hiru blog—. Nik baietz esan nion berehala, aukera bat iruditu baitzitzaidan EHUren babesarekin hitz egin ahal izatea jende askori nahiko garrantzi bakoa iruditzen zitzaion gai bati buruz.

**Zer harrera izan zuen?**

Hastapenak gogorrak izan ziren. Jende bat deseroso eta amorratuta zegoen. Bestalde, egunean artikulua bat igo izan dugu hasieratik, eta konplikatu da. Okurritu zitzaigun pieza oso motzak egitea, efemerideekin lotuta —1.600 efemeride ditugu blogean—. Horrek ahalbidetu digu artikulua batzuei denbora gehiago eskaintzea, gehiago ikertzea eta biografia luzeagoak idaztea, tarteka.

***Babes hitza erabili duzu...***

Nik ez dut uste emakumeek behar dugunik ez babesa, ez paternalismoa. Unibertsitateak emandako aterkiaz ari nintzen, aukeraz. Berme batzuekin hasi ginen: ez zituen

# «Berdintasunean atzerapausoak ematen ari dira, berdintasuna lortuta dagoela pentsatzeagatik»

MARTA MACHO STADLER

*EHUko Matematika irakaslea eta 'Mujeres con Ciencia' blogaren koordinatzailea*

Macho Stadlerrek esan duenez, andre zientzialarien ibilbideak ikusezin bihurtu dira, baina diskriminazioa ez da aitzindarien garaiko kontua soilik: orain, oztopoak «sotilagoak» dira, baina ez garrantzi gabekoak.

erasoak sailhestu, baina gehiago jasoko genituen egitasmo pertsonal bat izan balitz.

**Aipatu izan duzu neskak txikitatik hasten direla pentsatzen ez direla zientzia egiteko gai. Zuk zalantzak eduki zenituen?**

Ez. Matematikak ez dira emakume gutxien dauden diziplinetakoak, nahiz eta oso maskulinizatu dagoen; baina orain hasi da esparru maskulinizatu izaten. Izan ere, nik ikasi nuenean, matematikaren irteera nagusia irakaskuntza zen, eta irakaskuntza beti egon izan da oso feminizatu —irakasle izan nahi nuelako ikasi nituen nik matematikak—. Enpresa asko hasi direnean matematikariak eskatzen —hau da, ogibide arrakastatsua izaten hasi denean—, orduan hasi da emakumeen kopurua murrizten. Garai hartan, matematikak erakartzen ninduten, eta nire ingurukoak zientziari lotuta zeuden: gure aita matematika, fisika eta kimika irakaslea zen; eta hiru ahizpa eta anaia bat ginen, eta denok egin ditugu karrera zientifikoak. Gure ama etxekoandrea zen, ez zuen aukerarik eduki. Uste dut familia giroan gertatzen dena oso inportantea dela, eta gure giroa oso aldekoa zen.

**Espezializazioan egon ziren arazoak?**

Bai. Karrera momentu goxoa izan zen: asko ginen, taldea nahiko parekidea zen... Doktore tesia Frantzia egin nuen [Lyonen]; Geometria eta Topologia sailekoa naiz ni, eta eremu oso maskulinizatu da, baita orain ere. Oso txarto pasatu nuen tesi garaian: taldean jende oso ona zegoen; dinamikek eztabaida zuten ardatz, eta, azkenean, elkarri blokeatzen zioten denek. Ez zitzaidan iruditu lan egiteko modu egokia. Modu agresibo hori barneratuago dute gizonak: seguruagoak dira, ez dira emakumeak bezainbeste isiltzen, eta, beraz, buruak haiei erreparatu die, eta zu baztertuta geratzen zara. Halako egoeretan ulertzen duzu zergatik dauden hain emakume gutxi: niretzat esnatze bat izan zen, eta andre askori gertatzen zaie lan esparruan edo doktore tesiarenean garaian jabetzen direla egoeraz, eta haien artean elkartzen hasten direla hura hobetzen ahalegintzeko.

**Badago jokabide horiek saihesteko protokolorik?**

Gaur egun, unibertsitate eta ikerketa zentro guztiek dituzte berdintasun unitateak; garai hartan, ez. Baina zer esango duzu? Ez di-



zutela hitz egiten uzten? Momentu horietan, pentsatzen duzu: «Ez naiz hemen egoteko bezain ona». Eta ideia horrek ibilbide osoan jarraitzen dizu. Saldu digute zientzia jenioen kontua dela, baina ez da horrela. Ez dago zertan jenioa izan; nahikoa dira dedikazioa eta seriotasuna. Eta hori ulertuta, emakumeak lasaiago egongo ginateke, agian. Baina nik egunero errepikatzen diot neure buruari. **Agresibitatea aipatu duzu, esparru batzuetan balioztat hartzen dena. Gauza bera gertatzen da lehiakortasunarekin eta ambizioarekin ere? Kontzeptu gatazkatsuak dira, zure ustez?**

Nire ustez, bai. Gatazkatsuak dira; batik bat, emakumeek ez dugulako ondo funtzionatzen horietan. Areago, niretzat balio negatiboak dira, nahiz eta positibotzat jotzen diren. Uste dut hobe genukeela pentsatuko bagenu zientzia jardura kooperatiboa dela. Baina sarri lehiakortasuna sustatzen du jardura zientifikoak berak, edo akademian lanpostua egonkortzeko moduak, merituak biltzeko gainontzekoek baino lehenago argitaratu beharra baitago. Baina gauzak azkarregi egiten direnean, ez dira ondo egiten.

**Aipatu izan duzu ikasle batzuek**



«EHUren aterkipean, bermeekin hasi genuen bloga: eraso gehiago jasango genuen egitasmo pertsonal bat izan balitz»

«Sarri lehiakortasuna sustatzen du jardura zientifikoak berak, edo akademian lanpostua egonkortzeko moduak»



MARISOL RAMIREZ / FOKU

**MOTZEAN**

- **Emakume zientzialaririk aipatu zizuten karreran?** Ez. Zientzialari izena duten teoremak abizenez izendatzen dira, eta, inkontzienteki, pentsatzen duzu gizonetzko batena dela.
- **Bereziki harritu zaituen hutsune bat?** Gustuko ditut formakuntza zientifikoa eduki gabe zientziaren garapenari ekarpena egin dioten pertsonak.
- **Erreferentziatzko dibulgatzaileak?** *Mujeres con Ciencia*-n idazten dutenak. Carolina Martínez Pulido biologoa, Marga Sánchez Romero arkeologoa...
- **Matematika eta literatura uztartzen dituen adibide bat?** Asko gustatzen zait testuen egitura, eta askotan aipatzen dut Oulipo talde literario frantsesa: oztopoen pean idazten dute, eta oztopoak matematikoak dira sarri.

**uste dutela zientzian dagoeneko ez dagoela matxismorik. Oztopoak sotilagoak dira?**

Bai. Ikasten ari dira, eta momentu horietan oraindik ez daude lehiatzen; esan dezagun zuk egiten duzula zeure curriculum. Nik ere, seguruenik, ikaslea nintzenean, pentsatuko nuen inor ez zela ari ni diskriminatzen, baina noski diskriminatzen zaituztela: ikasleek, ikaskideek... Gizonak zein emakumeek. Sotila ez da garrantzi bakoagoa. Sotila denak hondatzen joan zaitzake egunero, zure gaitasunak zalantzan jar ditzazun eragiten du... Baina garai arriskutsua da: berdintasunean atzerapausoak igartzen ari naiz, oro har, hain justu berdintasuna jada lortuta dagoen uste horren ondorioz; aktibismoa galgatzeko baduzu, erraz itzul gaitzake egoera batzuetara. Eta gizon batzuk oso amorratuta daude, uste dutelako emakumeenganako ekintza positiboek —kuotek, adibidez— aukerak kentzen dizkietela beraiei. **Dibulгатzea, erne egotea diskriminazio egoeretan, protestatzea... Gizonak ere inplikatzeko dira aniztasunaren aldeko lan horretan?**

Badaude kezkatuta dauden gizonak, gizalegez jokatzeko dutenak



**AITORTZA.** Marta Macho Stadlerri Jaurlaritzaren Berdintasunerako Emakunde saria eman zioten 2017an, emakume zientzialarien lana dibulgateagatik eta matematikak emakumei hurbiltzeagatik. Iru-dian, garaikurrarekin, 2017ko apirilaren 5ean egindako sari banaketan, Lehendakartzan, Gasteizen. JUANAN RUIZ / FOKU

eta ausartzen direnak egoera gatazkatsuetan aurpegia ematen, baina emakumeek egiten dugu lan hori, gehienetan.

**Aniztasunaren aldeko lan horrek denbora kentzen dizue beste lan batzuk egiteko? Ikeretzeko, adibidez.**

Noski, argi eta garbi. Are, departamenduen lanen banaketan, emakumeek egiten ditugu ustez ezertarako balio ez dituzten lan horiek, eta gizonak ez dituzte egiten. Baina aktibista izateak, pentsatzeak beharrezkoa dela emakumez dibulгатzea, noski kentzen duela denbora. Beste batzuk euren zilberrera begira egoten dira —andre batzuk ere bai—. Jende batek publikatzeari baino ez dio eskaintzen bere denbora, eta klaseak hala moduz ematen ditu, ikerketa baita gaur egun gehien baloratzen dena. Eta egia da ikerketak kalitatezko denbora asko eskatzen duela.

**Zuk irakaskuntza lehenetsi duzu?**

Bai, dudarik gabe. Eta, seguruenik, ikerketa arloan egin nituen hastapenak ez zirelako atseginak izan. Oso gaizki pasatu nuen, oso garai txarra izan zen. Tesiak zuzendu ditut, ikerketa egin dut... Baina orain utzi egin ditut, den-

bora asko inbertitzen baitut irakaskuntzan eta dibulgazioan. Irakaskuntza lehenetsi dut, gustuko dudalako, uste dudalako trebea naizela, nire ikasleek kezkatzen naizela... Ikertu dudanean, egokien iruditzen zaidan moduan egin dut: doktoregaiak zainduta. Lan asko egin behar da, eta ni exijentea naiz; baina gauza bat da exijentea izatea, eta beste gauza bat agresiboa.

**Matematikak dibertigarriak izan daitezke? Dibertigarri bihurtzea da dibulгатzeko gakoetako bat?**

*Dibertigarri* hitza baino, gustukoagoa dut *zirrarragarri* hitza; batzuetan, harrigarriak dira. Badago dibulгатzio mota bat, zeinetan dibertitzea den funtsezkoena, barre egitea; barrea ona da, nik asko erabiltzen dut umorea, baina, nire ustez, matematikak ondo dibulгатzeko gakoa zirratzea da.

**Matematikak edonon daude, baina esparrurik espero gabe koenean ere. Erraza da harritzea matematikaren aplikazioez hitz eginda?**

Bai. Nik, adibidez, literatura asko erabiltzen dut; gainera, uste dut probokatzea ere badela. Izan ere, kultura mestizoa da. ●

**bidera**  
itzulpenak

**OINK OINK...  
GUAU??**

**PIO PIO...  
MIAUU??**



## **Nahi duzun hizkuntza guztietan**

Zuzenketak, itzulpenak eta zuzeneko interpretazio lanak



**berria**  
taldea

[www.bidera.eus](http://www.bidera.eus) • 943-303 555 / 607-787 304 • [bidera@bidera.eus](mailto:bidera@bidera.eus)

# Proiektu estrategikoen berpizkundea



**AUZOETATIK**  
Amaia Arenal Vidorreta

**E**usko Legebiltzarre-rako hauteskundeetarako lasterketa hasi berri da, eta kajoian gordeta zeuden proiektuak atera eta haiei hautsa kentzeko momentua heldu dela erabaki dute gure gobernuek. Horien artean, Bilboko Metroaren 4. linearen proiektua; 2009. urtetik Bilboko Udalaren, foru aldun-

diaren eta Eusko Jaurlaritzaren mahai gainean egon arren, izkina batean utzita omen dago.

2019-2023 agintaldiko Bilboko Udaleko azken osoko bilkuran, Bilboko Hegoaldea Bizirik plataformakoe, herritarren txanda aprobetxatuz, proiektua martxan jartzeko proposamena defendatu zuten. Baina EAJren eta PSE-EEren ezezko boza jaso zuten erantzun moduan.

Aurkeztutako proposamen horren bidez, hiriaren hegoaldeko auzoetako 70 elkarte baino gehiago biltzen dituen plataformak 2018. urtean udal gobernua berak hartutako konpromisoa berresteko eskatu zuten; duela sei urteko proiektu haren arabera, Matikoko bidearen jarraipena izango litzateke 4. linea, hegoaldeko auzoak Bilboko iparraldearekin lotuz: Txurdinaga, Otxarkoaga, Arabella, Zurbaran, Uribarri, Deustu, San Ignazio eta Arangoiti auzoekin, besteak beste. Mo-

yuako geltokiraino dagoeneko funtzionamendun dago; beraz, soilik garatu beharko litzateke Moyua plazatik Errekalderako bidea. Modu honetan, konpromiso politiko eta ekonomikoa eskatu zuen plataformak; hain zuzen, proiektua aurrera eramateko aurrekontuen diru sail bat babesteko. Esan bezala, gobernuko bi alderdiek ezezkoa eman zioten proposamenari.

Osoko bilkura horretatik ez da urtebete ere igaro, eta gaia berriro eztabaida politikoa presentean dago. EAJ eta PSE-EE alderdiek defendatutako proiektuak proposatzen du AH-Tra Abandora iristearen obrak aprobetxatuz linea garatzea. Elkarte eta eragile ezberdinek euren desadostasuna adierazi dute; besteak beste, auzo mugimenduen planteamenduak ez bezala, proiektu hau ez delako Zabalburu, Zabala, Miribilla edo San Adrian bezalako auzoetatik igarotzen. Hau da, Bilboko

**Bilboko auzoetako biztanleen aldarrikapenak alde batera utzita, haien beharretara egokitzen ez den irtenbidea aurkeztu du gobernua**

hegoaldeko auzoetan bizi diren 50.000 auzokideetatik kopuru handi bat metrorako sarbiderik gabe utziko luke gobernua aurrera eraman nahi duen proiektuak. Berriz ere, Bilboko

auzoetako biztanleen aldarrikapenak alde batera utzita, haien beharretara egokitzen ez den irtenbidea aurkeztu du gobernua.

Hala ere, Elixabete Etxanobe diputatu nagusiaren azkeneko adierazpenen arabera, Abandoko geltokiaren lurperatzeari itxaron beharko dugu obren nondik norakoak baieztatzeko. Metroaren 4. linearen mamua hurrengo hauteskundeetan behin eta berriro berpiztuko dela dirudi, gure auzoetan beharrezkoak diren beste hainbat proiektu bezala —Otxarkoagako kiroldedia, Arangoitiko igogailua, Zorrotzako trenbideen lurperatzea edota Errekalderako autobidearen eraisketa, besteak beste—. Argi utzi dute, auzotarrek urteetan zehar salatu duten legez, metroa hegoaldeko auzoetara ailegatu aurretik helduko dela AHTa Bilbora, berriro gobernuen interes eta lehentasunak agerian utziz. ●

## HITZ GUTXITAN

### Hilaren 19an greba Bizkaibusen, langileen aurkako erasoak salatzen

BILBO— ELA, LAB, CCOO, USO eta UGT sindikatuek grebara deitu dituzte Bizkaiko langileak hilaren 19rako. Salatu dutenez, azkenaldian ugaritu egin dira beharginen aurkako irain eta eraso fisikoak, eta, gainera, diotenez, «gero eta larriagoak» dira. Segurtasun neurriak indartzea nahi dute.

### Ibarrangelun eta Elantxoben, orain arteko medikua gura dute

IBARRANGELU— Ibarrangeluko eta Elantxobeko herritarrek kalera atera ziren asteburuan, eta etzi berriro irtingo dira: Ruth Torrek herri biotako mediku izaten jarraitzea gura dute. Azken oposizioetan lekua lortu du Torrek Galdakako osasun zentroan, eta han hasi behar du datorren astean.



### Foru langileek euskaraz jakitea bermatzeko eskatu dute

BILBO— Hizkuntza eskakizunen aurkako azken epaiak salatzen, ehunka langilek eta eragilek protesta egin zuten herenegun, Bilboko Foru jauregiko atarian —argazkian—, Euskalgintzaren Kontseiluak eta ELA eta LAB sindikatuek deituta. Esan dute ez dutela onartzen ehunka lanpostu publiko arriskuan jartzea, hizkuntza eskakizunak eskatzea diskriminatzailea dela aitzakiatzat hartuta. Foru aldundiko lanpostu guztietan euskarazko gutxienezko ezagutzak bermatzeko eskatu dute. BIZKAIKO HITZA

DATUA

# 1,3

Bilbon, Artxandako funikularrak marka hautsi zuen iaz, 1,3 milioi bidaiarirekin. Aurreko marka 2019koa zen, eta orduan baino 100.000 lagun gehiagok erabili zuten iaz. Azaroan eta abenduan erabili zen gutxienez, grebagatik.

### Artoaren zikloa ospatuko dute etzi Berangoko Otxantegikoek

BERANGO— Artoaren ziklo amaierako festa egingo dute etzi Berangoko Otxantegi herri lurrekoek. Duela urtebete Martiturrin ereindako hazien fruituak jaso, aletu eta labean erre ostean, Arrietako Olatxu errota errotan ehoko dituzte. Bizikleta martxa egingo dute, Berangoko Otxantegitik Arrietara, 09:00etan.

# Urduñan, gizarte zerbitzuetara doazenen elikadura eskubidea bermatu nahi dute

→ Bizilur eta Zapalan elkarteek elikadura ekologikoak dituen onurak probatu dituzte egoera zaugarrian dauden sei gazterekin. Probaren emaitzak onak izan direnez, gizarte zerbitzuetara hedatu nahi dute.

Ibai Maruri Bilbao

Adingabeen zentro batean egondako sei gazte Zapalan elkarteak Urduñan duen harrera pisu batean bizi dira 18 urte bete zituztenetik. Elikadurari buruzko proba batean hartu dute parte. Bost hilabetez, ohiko jatekoa barik, ekologikoki ekoiztako baserritarren produktuak jan dituzte, eta frogatu dute haien osasunean eragin positiboa izan duela aldaketak. Horregatik, gazte zaugarri horientzat bezala, gizarte zerbitzuetako erabiltzaile guztientzat halako elikadura bermatzeko programa bat bultzatuko dute Urduñako Udalarekin.

Urduñako egitasmoa proiektu handiago baten parte da, Bizilur elkarteko David Lopategik azaldu duenez. Lankidetzarako eta herrien garapenerako elkarteak da Bizilur, eta elikadura burujabetzaren inguruan egiten du lan. Agharas Barakaldoko amazig elkartearekin, Zapalaneekin eta EHKOlektiboa Euskal Herriko agroekologia elkartearekin batera ari dira lanean. Esaterako, Aghararesekin ere haien pisu sozialean daudenekin ari dira ortugintza lantzen.

Irail eta urri bitartean hasi zuten proba Urduñan Zapalaneke gazteekin. Nutrizionista bat kontratatu zuten, proiektuaren jarraipena egin zezan. Lopategik esan duenez, gazteek osasunari lotutako arazo batzuk zituzten aurretik: aipatu ditu anemia, lotarako arazoak, nekea... Odol analisiak ere egin zituzten. Nutrizionistak elkarrizketatu zituen, eta denen artean adostu dute menua. Otsailean bukatu dute bost hilabetezko proba. «Orain hobeto daude: deskantsatzen dute, indartsuago sentitzen dira, eta odol analisisen emaitzak hobetu dira», kontatu du Bizilurreko kideak. Prozesu guztia grabatu dute, eta laster dokumental batean kontatuko dute. Datu guztiak ere argitaratuko dituzte txosten batean.

«Erakutsi nahi dugu elikadura osasuntsu batek zer nolako onurak dituen». Horregatik, uste dute gizarte zerbitzuetara joaten diren guztiak izan beharko luketela «elikadura eskubidea» ber-



JARRAIPENA. Zapalan elkarteko etxean bizi direnak eta proiektua gidatu duen nutrizionista, iaz. ZAPALAN



SASKIA. Urduñako eta inguruko ekoizleen produktuekin hornitu dute sukaldia. ZAPALAN

matuta. «Ohiko ereduak da elikadura bankuetatik jasotakoarekin elikatzea. Baina eredu horretan ez dago elikagairik. Produktu jangarriak ematen dizkiete soilik, nutrizionalki ez dutenak ezer ematen. Sabela bete eta gosea kendu baino ez diete egiten, baina osasunerako kaltegarriak dira». Ostera, elkarteek bultzatu gura duten ereduak, lehen sektoreak ekoiztako sasoiako produktuekin elikatuko lirake. Horretarako, ezinbestekoa dute gizarte zerbitzuetako profesionalen, hiruga-

ren sektorearen eta nekazarien elkarlana. Gainera, probatu dute proposatzen duten ereduak ez dela garestiagoa: hilean 250 euroekin elikatu dituzte sei gazteak.

Behin proba bukatuta, eta Urduñako gizarte zerbitzuetan eredu berria ezarriko duen programa martxan jarri arte, parte hartu duten eragileek ez dute nahi sei gazteok lehenago zuten elikadura eredura itzul daitezen. Horregatik, Lopategiren arabera, datozen aste eta hilabeteetan herriko eragileak arduratuko dira

pisu hori hornitzeaz; probaldian herriko ortuetatik eta Bilboko Kidekoop elikadura kooperatibatik hornitzen izan dituzte.

## Estrategia baten parte

Urduñan, udalaren babesak izango dute gizarte zerbitzuetan aldaketa hori bultzatzeko. Izan ere, udalerrak hamar urte baino gehiago daramatza elikadura estrategia batekin. «Elikadura burujabetza da egiten duten guztiaren ardatza: lurra berrantolatu dituzte, industria bideratu dute... Horri



«Gizarte zerbitzuek ez dute ematen elikagairik; soilik produktu jangarriak. Bakarrik egiten dieteabela bete»

«Urduñako lehen sektorea ekonomiaren motore bihurtu dute, eta behar dituen baliabideak ematen dizkiote»

DAVID LOPATEGI

Bizilur elkarteko kidea

esker, beste herrietan ez dauden baliabideak dituzte». Berbarako, haur eskola eta nagusien egoitza hornitzeko sukalde bateratu bat sortu dute, eta herriko eta inguruko ekoizleen produktuekin osatzen dute menua. «Urduñako eta inguruko lehen sektorea ekonomiaren motore bihurtu dute, eta sektoreari behar dituen baliabideak eta azpiegiturak ematen dizkiote».

Lopategik kontatu duenez, Euskal Herriko beste toki batzuetan ere badaude elikadura burujabetzari lotutako «proiektu interesgarriak», baina denak izaten dira gizarte mugimenduek edo ekoizleek bultzatutakoak. «Urduñako berezitasuna da strategiaren atzean udala bera dagoela, eta hori salbuespena da». Beste askorentzat eredu izan daitekeela iruditzen zaio Bizilur elkarteko kideari. Horregatik, gutxienez gizarte zerbitzuetan eraldatzailerik izan nahi dute, eta Urduñako proiektua Bizkaiko Batzar Nagusietara eta Eusko Legebiltzarrerara eroran gura dute, Bizkaian edo autonomia erkidegoan gizarte zerbitzuetako elikadura hornidura ereduak aldatzea lortzeko.

Aldaketaren onura ez lukete soilik erabiltzaileek igarriko; Lopategiren esanetan, komunitatean eta tokiko ekonomian ere onurak ekarriko lituzke. Besteak beste, lehen sektorerara jendea erakartzen lagunduko luke. ●



# Durangaldeari buruzko dokumentalak, sarean

- Gerediagak 'Garaia' ataria sortu du eskualdeko hainbat eragilerekin.
- Oraingoz, Durango 1936k egindako grabaketak eta Iurretako kofradien historiari buruzkoak daude ikusgai.

## Ibai Maruri Bilbao

Gerediaga elkartearen zereginetako bat da Durangaldeko historia eta ondarea ikertu eta hedatzea. Asmo horrekin hainbat proiektu eta jardura bultzatzen ditu: ondare jardunaldiak, argazki artxiboa, *Astola* aldizkaria eta urtean zehar egiten dituzten beste hainbat jardura. Orain beste pauso bat eman dute; *Garaia* izeneko Interneteko ataria sortu dute eskualdearekin lotura duten ikus-entzunezkoak bildu eta eskuragarri jartzeko. *Garaia.gerediaga.eus* helbidean dago. Durango 1936 kultur elkar-  
tea, Otxandioko Andikona 1936 eta Zaldibarko Castet elkar-  
tea dira Gerediagaren bidelagunak proiektuan.

Oraingoz, bi atal nagusi ditu Interneteko plataforma berriak. Batetik, Durango 1936 elkarteak —memoria historikoa lantzen du— egindako testigantzen bilduma dago ikusgai. Abadiñon, Atxondon, Berrizen, Durangon, Elorrion, Garain, Iurretan, Izurtzan, Mañarian, Otxandion, Zaldibarren eta Zornotzan egindako elkarrizketak ikus daitezke. Hainbat gai lantzen dituzte: gerraurrea, gerraren bilakaera, bonbardaketak, errepresioa, kartzela, militantzia, frankismo osteko lehen urteak...

Markel Onaindia kazetaria arduratu da azken hogeitazentzako editatzeaz eta atarira igotzeaz. «Aurretik lan mardul bat egin da. Durango 1936 elkarteak ikerketa lan itzela egin du 2007tik hona, eta 150 testigantza jaso ditu», esan du Onaindiak. Hori izan da abiapuntua, eta Gerediagak orain Durango 1936k emandako lekukoa hartu du. «Lan horri balioa emango zaio, sakondu egin-

go da, eta, Gerediagaren bitartez, beste esparru eta arlo batzuetan zabalduko da».

Beste atala Iurretako kofradien historiari eskainita dago. Iaz argitaratu zuten argitalpen bat da abiapuntua; kasu honetan. Jon Irazabal historialariak Erdi Arotik 1970eko hamarkadara artekoa aztertu zuen, artxiboetan arakatu-ta. Onaindiak orduetik gaur arteko urteak ikertu zituen; horretarako, kofradiekin lotutako hamabost lagun elkarrizketatu zituen iaz, eta ikus-entzunezko formatuan grabatu zituen lekukotzak. Horiek daude orain ikusgai *Garaia*-n.

Onaindiak esan duenez, atal monografiko gehiago sortzeko aukera zabalik dago, eta espero dute aurki ikerketa bati lotutako bat martxan jarri ahal izango dutela. «Durango 1936ren eta kofradien atalak testigantzekin osatuta daude, eta, seguruenik, laster antzeko beste bilduma bat egongo da ikusgai, hori ere lekukotzetan oinarrituta».

Durango 1936koek egindako



«Lan mardul bat egin da. Durango 1936 elkarteak ikerketa lan itzela egin du 2007tik, eta 150 testigantza jaso ditu»

MARKEL ONAINDIA  
Kazetaria



elkarrizketak elkartearen beraren webgunean egon dira ikusgai lehendik ere. Baina *Garaia*-ra pasatuta hedapen zabalagoa emateko aukera izango dutela iruditzen zaie. Ikus-entzunezko plataformek hartu duten indarra ikusita, Gerediagari landu beharreko arloa iruditu zaio.

## Sortzaileen lanak

Atalka antolatutako ikerketa lan horiek ez dira izango *Garaia* osatuko duten bakarrak. Atariaren beste oina eskualdeko sortzaileek egindako ikus-entzunezko lanak izango dira, Onaindiak aurreratu duenez. Hori sortzeko lanetan ere badabilta; hura dabil dokumentalak aukeratzen. *Garaia*-n ikusgai egoteko, bi baldintza nagusi bete beharko dituzte ezinbestean: Durangaldearekin lotura izatea gaiak, eta sortzailea ere eskualdekoa izatea.

Ekoizpenak gaur egungoak edo aspaldi egindakoak izan daitezke —azken horiek digitalizatu egingo dituzte—. Onaindia dabil lanen aukeraketa egiten. «Ikusten ari gara lan interesgarriak ekoitzi direla Durangaldean. Batzuk dagoeneko Youtuben dauden ikusgai, eta beste batzuk ezin daitezke inon ikusi edo plataformaren batean topa daitezke. Horregatik, gure asmoa da denak batu eta jendearen eskura jartzea», azaldu du kazetariak. Modu horretan sakabanatuta egonda baino irismen handiagoa izan dezaketela uste dute Gerediagakoek.

Onaindiak adierazi duenez, ikus-entzunezkoen arloan dabil-tzan sortzaile asko dituzte eskualdean. Haiei eskainitako atala mar-

txan jartzen dutenerako, espero du hobe bat dokumental izango dituztela. Eta, gero, gehiago batuko zaizkie. Asko dute erakusteko Durangaldean. ●

**IURRETA.** Markel Onaindia —kamerarekin— Iurretako kofradiei buruzko testigantzak grabatzen, iaz. MARKEL ONAINDIA

**m**  
Mondragon  
Unibertsitatea



Learning  
from  
reality



## ATE IREKIAK UNIBERTSITATE GRADUAK

### INGENIARITZA

- Arrasate MARTXOAK 16
- Galarreta EKO Campus (Orona Ideo) MARTXOAK 16
- Bilbao AS Fabrik MARTXOAK 16
- Golierrri-Ordizia MARTXOAK 20

### ENPRESA KUDEAKETA

- Bilbao AS Fabrik MARTXOAK 23
- Oñati APIRILAK 20
- Bidasoa-Irun APIRILAK 20

### EKINTZAILETZA

- Oñati MARTXOAK 14
- Bidasoa-Irun MARTXOAK 14
- Bilbao BBF APIRILAK 13

### HEZKUNTZA

- Eskoriatza MAIATZAK 18
- Bilbao AS Fabrik MAIATZAK 18

### KOMUNIKAZIOA

- Aretxabaleta MAIATZAK 18

### HUMANITATEAK

- Bilbao AS Fabrik MAIATZAK 18

### GASTRONOMIA

- Basque Culinary Center
- Donostia MAIATZAK 4

Eman izena! [www.mondragon.edu/ate-irekiak-graduak](http://www.mondragon.edu/ate-irekiak-graduak)

# Kristal hautsiak, elkartasuna adierazteko

**Palestinari babesa adierazteko asmoz, 'Hautsiak' erakusketa jarri dute ikusgai Bilboko Zazpikaleetako 11 erakusleihotan. Baztan Arte-Kale kolektiboaren proiektua da.**

Olatz Enzunza Mallona

Zalantzarik gabe, azken hamar-kadetako giza krisirik latzena eragin du Israelek Gazaren (Palestina) aurka egindako erasoaldiak. Joan den urriaren 7an gerra hasi zutenetik, Israel etengabe ari da Gaza bonbardatzen, eta, gutxienez, 30.000 lagun hil ditu. Kopurua, gainera, gora egiten ari da egunetik egunera. Ezbehar hori abiapuntutzat hartuta, *Hautsiak* erakusketa ondu du Baztan Arte-Kale kolektiboak. Bilboko Zazpikaleetako 11 erakusleihotan jarri dituzte ikusgai artelanak, eta martxoaren 22ra bitarte bisitatu ahal izango dira.

«Palestinan gertatzen ari denak hautsi egiten gaitu: Palestinako haurrek, amek, lurrek... Palestinarren minak hausten gaitu, oro har», adierazi du Zigor Merodio Baztan Arte-Kale kolektiboko kideak. Guda hasi zenetik hona, indartu egin da Palestinaren aldeko elkartasuna Euskal Herrian: plataforma berriak sortu dituzte, eta egoera salatzeko ekitaldi andana antolatu da. Alabaina, kolektiboko kideek babesa «modu berri eta originalean» helarazteko erabili nahi izan dute artea: «Palestinak pairatzen duen egoerarekin oso hunkituta gaude, eta artea aukera ona izan daitekeela iruditu zaigu beste publiko mota batengana iristeko. Egonezin artistikoez eta politikoez bat egin dute».

Era kolektiboan osatu dute erakusketa osoa. «Gutako bakoitzak askotariko adierazpen artistikoak jorratzen ditu, eta guztiok izan gara elkarren osagarri», azpimarratu du Merodiok. Gehienbat, «basakeriaren biktima» izan diren haurrak irudikatu dituzte erakusketa bitartez: «Umeak ari dira izaten genozidioaren biktima nagusiak, eta horiek islatu nahi izan ditugu erakusketa: 2 urteko Zuhair, 10 urteko Fatima, 5 urteko Youssef...». Horiez gainera, baina, badaude bestelako pieza batzuk: torturatu duten pertsona bat eta emakume bat, esate baterako. Denera, 11 pieza ondu dituzte, eta bakoitza Zazpikaleetako erakusleihotara batean jarri dute.



## Erakusleihokak

- Gili Gili arropa denda.
- Izarkom telekomunikazio kooperatiba.
- Adaxka kultur elkarte.
- Ekoetxe elkarte.
- Antitaurina denda.
- Maldejojo optika.
- Kabbo haurrentzako denda.
- La Sinsorga kulturguner feministar.
- La Doline tatuaje denda.
- Sorgin artisau denda.
- Ardibeltz taberna.

Artelanak egiteko teknika bera erabili dute pieza guztietan: mailuarekin eta puntzoiarekin apurtutako kristal bat, hain zuzen ere. «Sionismoaren eskuek gorrotoz hausten dituzte palestinarren etxeetako kristalak; gure eskuek, berriz, maitasunez hausten dituzte kristalak palestinarren aurpegiak Bilboko kaleetara ekarri ahal izateko», kontatu dute euren webgunean. Aurpegiak soilik erakusten dira artelanetan, baina pieza bakoitza «xehetasun osoz» irudikatzea lortu dute: «Palestinarrak sufritzen ari diren beldurra, mina, sufrimendua... bere horretan transmititzen ahalegindu gara».

Artelan bakoitzaren alboan QR kode bat ere gehitu dute, eta, horren bitartez, *Hautsiak.eus* webgunera jo dezake bisitariak: «Erakusketa informazio osagarria dago webgune horretan: argazkiak, bideoak, kanpo loturak, erakusketa parte hartu duten erakusleihotaren mapa bat, helbideak...».

**Herritarrengan eragin nahi**  
Beste kontu batzuen artean, Bilboko Zazpikaleetatik igarotzen



Hautsiak erakusketa bi lan Bilbon: Adaxkan —goian— eta Ekoetxean —behean—. M. DEL VALLE / FOKU



**«Herritarrok erosketak egiten, tabernan, pasean... lasai gabiltzan bitartean Israelek jendea hiltzen jarraitzen du»**

**ZIGOR MERODIO**  
Baztan Arte-Kale kolektiboko kidea

diren herritarren «kontzientziak astindu» nahi dituzte erakusketa bitartez: «Herritarrok erosketak egiten, tabernan, pasean... lasai gabiltzan bitartean Israelek jendea hiltzen jarraitzen duela aldarrikatu nahi dugu. Genozidio hori une oro herritarren kontzientzietan presente egon dadin nahi dugu».

Oraingo «arrakasta itzela» izaten ari direla nabarmendu du Merodiok, eta eskerrak eman

nahi izan dizkie artelanak erakusleihotara jartzeko aukera eman dieten auzoko merkatariek elkarteetako kideei: «Izugarria izaten ari da; oso pozik gaude. Artea, salaketa eta elkartasuna eskutik helduta doaz gure auzoan».

Aurrera begira, berriz, erakusketa Bilbotik kanpora zabaltzeko uste du Merodiok: «Teknikoki bideragarria baldin bada, guk ez daukagu inolako arazorik». ●

# KINKA

KLIMA ETA NATURA KRISIAN



Podcasta eta buletina,  
**hamabostero**

HARPIDETU ZAITEZ  
BULETINERA

[Berria.eus/kinka](https://berria.eus/kinka)

**aldi hau**  
*kontatzeko*  
berria



# Zimurrek edertutako jaialdia

- Aurten, bigarrenenez, Silver Film Festival zinema jaialdia egingo dute Bilboko bost espaziotan.
- Adineko pertsonengan jartzen du arreta jaialdiak, eta, besteak beste, adinkeria eta zahartzaro berria jorratuko dituzte.

## Olatz Enzunza Mallona

Zahartzaroa gai tabu bat da askorentzat. Zahartzearen irudi negatiboa zabaldua dago gizartean, oro har, eta, fikzioaren bitartez, adintzearen eta zaharren inguruko iruditeria berriak sortzen saiatzen badira ere, aspaldiko estereotipoetara jotzeko joera dago kasu gehienetan. Errealitate horri buelta emateko asmoz sortu dute Silver Film Festival zinema jaialdia, Bilbon. Adineko pertsonengan jartzen du arreta, eta zaharrak eta zahartzaroa modu askotara irudikatu daitezkeela erakutsi gura dute. Bigarrenenez egingo dute aurten, Bilboko bost espaziotan, astelehenean hasi eta zapatara bitarte. Haren ondotik, Lea-Artibaira joango da jaialdia, maiatzean.

Kulturaren bitartez, gizarte inklusiboagoa eta berdinzaleagoa egitea da, finean, zinema jaialdiaren helburu nagusia, Marian Gerrikabeitia zuzendariaren hitzetan: «Estereotipoak apurtu, eta adinekoak ere gizartean parte garea erakutsi nahi dugu».

Adinkeria izango da Silver Film Festivalen bitartez jorratuko diren gaietako bat. Izan ere, Gerrikabeitia salatzen du adintzearen inguruan diskriminazioa dagoela oro har gizartean: «Adinagatik diskriminatzeko modu bat da adinkeria, eta zaharrei eragiten die, batez ere. Zahartzarora ulertzeko moduarekin lotuta dago, zabaldu diren estereotipoekin. Horrela, mugatu egiten da zahartzaroren aniztasuna, eta homogeneotasuna bultzatzen da». Bi mahai inguru egingo di-

tuzte horren harira; ostegunean eta larunbatean.

Beste gai batzuen artean, zahartzaro berriak ere «pisu handia» hartuko du, zuzendariak aurreratu duenez. «Jaiotza tasa baxuaren eraginez, 55 urtetik gorakoak gara egun populazioaren gehiengoa. Aurrekaririk gabeko garai sozial batean bizi gara, eta egoera berri horretara egokitzen gabilta». Jaialdiak, finean, «halako gaiez hitz egiteko espazio bat» izan nahi du: «Bakoitzaren kezka, zalantza... partekatzeke lekua izango da».

Astelehenetik zapatara bitarte, denetariko filmak, dokumentalak eta telesailak proiektatuko dituzte. *A los libros y a las mujeres canto* dokumentalak zabalduko du aurtengo aldia (Maria Elorza, 2022), eta, haren ondotik, beste hamahiru ikus-entzunezko proiektatuko dituzte: *Ese soplo* (Valentina Baracco, 2022), *Orgullo vieja* (Chema Rodriguez, 2023), *Cocoon* (Ron Howard, 1985), *Y llovieron pájaros* (Louise Archambault, 2019), *Hondalea*



«Aurrekaririk gabeko garai sozial batean bizi gara, eta egoera berri horretara egokitzen gabilta»

## MARIAN GERRIKABEITIA

Bilboko Silver Film Festival jaialdiko zuzendaria





**1** | *Orgullo vieja* filmeko fotogramata bat. Silver Film Festival jaialdiaren irekitze galan estreinatuko dute, asteazkenean. SILVER FILM FESTIVAL

**2** | *Empieza el baile* filmeko eszena bat. SILVER FILM FESTIVAL

**3** | Begoña Krego dantzari eta koreografoa, artxiboko irudi batean. Aurten, Silver Saria jasoko du. RAUL BOGAJO / FOKU

(Asier Altuna, 2021) eta *Empieza el baile* (Maria Seresesky, 2023), kasurako. Proiektzioez gain, baina, bestelako jarduera batzuk ere egingo dituzte: hitzaldiak eta mahai inguruak, esaterako.

Horiek guztiak Bilboko bost tokitan egingo dituzte: Campos antzokian, Azkuna zentroan, Guggenheim museoan, Louise Michel liburutegian eta Bilborock aretoan, hain zuzen ere.

#### Gazteekin elkarrizketak

Berez, 55 urtetik gorako ikusleentzako da zinema jaialdia, baina gazteak ere erakarri nahi dituzte: belaunaldien arteko topaketak egingo dituzte. Asteartean eta ostegunean izango dira horiek, eta belaunaldi gazteak eta zaharrak harremanak izatera gonbidatu nahi dituzte. *Zorion Egileor ezagutzen* ekitaldiaren barruan egingo dute lehenengo elkarrizketa, asteartean; eta *La abuela Sofía* telesailako kapitulu batzuk ikusi ostean egingo dute bigarrena, ostegunean. «Kapitulu bakoitzean jorratzen diren gaiak landuko dira solasaldian: gazteek eta zaharrek nola bizi duten lotsa, ospea, maitasuna...», esan du Gerrikabeitiak.

Baina izango dira berrikuntza gehiago ere. Bilbo Arte fundazioarekin elkarlanean, adineko pertsonen proiektu artistikoak garatzeko beka bat aurkeztuko dute. Horrez gainera, Silver saria ere banatuko dute aurten, estreinakoz, EITBekin elkarlanean: Begoña Krego dantzari eta koreografoa aitortza jasoko du. «Euskal Herriko dantzaririk beteranoenetako bat da Krego, eta adina ez dela eragozpen bat erakutsi du urte hauetan guztietan», adierazi du Gerrikabeitiak. Azken egunean, gainera, jaialdiari amaiera emateko, *Maneras* dantza ikuskizuna aurkeztuko du, Guggenheimen.

Filmaren amaieretan ohikoak izaten diren *The End* hitzak erabili ditu Silver Film Festivalek aurten go logoa ontzeko. «Indarrez, irmotasunez eta kolorez» betetako proposamena da, antolatzaileen arabera, eta «mitoak eraistea» da asmoa. Carles Murillok diseinatu du, eta Ricardo Rey artistaren laguntza izan du. «Mitoak eraitsi nahi ditugu, ezarritakoa hautsi eta bizitza luzera berriaren oinarritutako paradigma aldaketa proposatu», adierazi dute.

Tu & Yo produkzioek, EDE fundazioak eta Silver Revolution elkarteak sustatzen dute Silver Film Festival jaialdia, eta Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bilboko Udalaren, BBK Fundazioaren eta SGAeren laguntza jaso dute. ●



## Egunez egunekoa

### MARTXOAK 11, ASTELEHENA

**19:00.** *A los libros y a las mujeres canto* dokumentala, Louise Michel liburutegian.

### MARTXOAK 12, MARTITZENA

**17:00.** *Ese soplo* dokumentala eta solasaldia Valentina Baracco zuzendariarekin, Bilborock aretoan.

**19:00.** *Zorion Egileor ezagutzen*, Bilborock aretoan: *Arnasa* film laburra eta solasaldia aktorearekin.

### MARTXOAK 13, EGUAZTENA

**18:00.** Silver Film Festival jaialdiaren irekitze gala, Campos antzokian: bakarrizketak eta *Orgullo vieja* ikus-entzunezkoaren estreinaldia.

### MARTXOAK 14, EGUENA

**12:00.** Film laburren emanaldiak, Azkuna Zentroan.

**18:00.** Adinkeraren inguruko mahai ingurua, Azkuna Zentroan.

Hizlariak: Manel Dominguez, Iñigo Calvo-Sotomayor, Elena del Barrio, Rafa Lopez-Arostegi eta Vania de la Fuente Nuñez.

**19:00.** *Cocoon* ikus-entzunezkoa, Azkuna Zentroan.

**19:15.** Manel Dominguez idazlearen *Senior. La vida que no cesa* liburuaren aurkezpena, Poza Lizentziatuaren kaleko Elkar liburu dendan.

### MARTXOAK 15, BARIKUA

**12:00.** Belaunaldien arteko elkarrizketak, Guggenheim museoaren auditoriumean.

**18:00.** *Y llovieron los pájaros* ikus-entzunezkoa, Guggenheim museoaren auditoriumean. Ondoren, solasaldia Jocelyne Saucier idazlearekin.

### MARTXOAK 16, ZAPATUA

**12:00.** *Hondalea* dokumentala, Guggenheim museoaren auditoriumean. Ondoren, *¿Hay edadismo en el arte?* mahai ingurua.

Hizlariak: Miriam Ocariz, Eduardo Sourrouille, Petra Perez eta Miriam Alzuri.

**17:00.** *¿Alcanzaremos los 140 años? ¿Es posible?* hitzaldia. Hizlariak: Marian Gerrikabeitia eta Maria Blasco.

**18:00.** *Empieza el baile* eta *Muros* filmak. Baita *Maneras* dantza ikuskizuna, Begoña Kregoren eskutik.



SILVER FILM FESTIVAL

## «Gauza asko egin ditut nire ibilbidean»

### ZORION EGILEOR Aktorea

Silver Film Festival jaialdiaren barruan, Zorion Egileor aktoreari buruzko ekitaldi bat egingo dute asteartean.

#### O. Enzunza Mallona

«Bizitza osoa» darama arte munduan Zorion Egileor aktoreak (Mundaka, 1946). Hala ere, bereziki, *El Hoyo* filmari esker lortu zuen arrakasta mundu osoan (Galder Gaztelu-Urrutia, 2019). Silver Film Festival jaialdiak omenaldia egin nahi izan dio, eta, horregatik, *Zorion Egileor ezagutzen* ekitaldia egingo dute asteartean, Bilborock aretoan, 19:00etan: *Arnasa* film laburra proiektatuko dute, eta, haren ondoren, aktorearekin solasaldia egingo dute.

#### Zer esan nahi du zuretzat zuri buruzko ekitaldi bat egiteak Silver Film Festival jaialdian?

Oso eskertuta nago. *Arnasa* film laburra ikusteaz gainera, gazteekin tarte batez hitz egiteko aukera izango dut, eta gogotsu nago haien kontuak eta kezkek entzuteko.

#### Nola daramazu arrakasta?

Ondo. Egia esan, kostatu egin zitzaidan horretara ohitzea, baina

poztasun itzela ematen du. Zure lana ondo egin duzun erakusle da, nolabait, eta jendeak balioa ematen dio.

#### Nolatan hasi zinen aktore lanean?

Gure familia betidanik egon izan da arte munduari lotuta: musikari, antzerkiari... Nik neuk 18 urterekin eman nuen izena herriko antzerki taldean, eta orduetik martxan nabil. Berez, irratian egiten nuen lan, kazetari gisa, baina, bitartean, gauza asko egin ditut arteari lotuta nire ibilbide osoan.

#### Zein arte diziplinatan aritzen zara erosoan?

Antzerkian. Sekulako esperientzia da: jendea aurrez aurre daukazu, haien feedbacka berehala jasotzen duzu, zuzeneko da... Berezia da. Bestelako arte diziplinak ere asko gustatzen zaizkit, egia esan. Guztiek dituzte alde on eta txarrak, eta horregatik atsegin ditut.

#### 78 urte izan arren, lanean ari zara oraindik.

Bai, noski. Burua argi daukat gidoiak ikasteko, eta fisikoki ere ondo nago. Beraz, aurrera.

#### Zer duzu esku artean orain?

Gauza asko. Astelehenean film bat grabatzen hasi ginen Gas-teizen, eta gidoi horrekin nabil oraintxe. Baina, horrez gainera, bi telesail ditut estreinatzeko, eta beste pelikula bat ere bai. Bestalde, Ramon Barearen film labur polit bat ere grabatu dut oraintxe. ●

## MUSIKA

- Abadiño** Old Time Spooks. Ostegunean, 19:30ean, Amaraun arte fabrikan.
- Arantzazu** DJ Watxas. Gaur, 21:00etan, herriko tabernan.
- Barakaldo** *Play!*. Modesto Lai eta Alba Rubi. Ostegunean, 20:00etan, Barakaldo antzokian.
- Basauri** Sara Azurza. Bihar, 20:00etan, Social antzokian.
- Bilbo** Pirlo. Gaur, 00:00etan, Santana 27n.
- Bilbo** Nerea Arrieta trio. Gaur, 19:00etan, Jazzonen.
- Bilbo** *Emakume musikagileak*. Kontserbatorioko irakasle eta ikasleak. Gaur, 19:30ean, Juan Crisostomo de Arriaga musika kontserbatorioan.
- Bilbo** Jarfater. Gaur, 20:00etan, Stage Liven.
- Bilbo** Kadec Santa Anna. Gaur, 20:30ean, Santana 27n.
- Bilbo** Gilipojazz. Gaur, 21:00etan, Cotton cluben.
- Bilbo** Tito Ramirez. Gaur, 22:00etan, Kafe Antzokian.
- Bilbo** Organ Freeman. Bihar, 19:00etan, Bidebarrieta kulturgunean.
- Bilbo** Basabi. Bihar, 19:30ean, Campos antzokian.
- Bilbo** Carla Sevilla Quintet. Bihar, 20:00etan, Jazzonen.
- Bilbo** Jarfater. Bihar, 20:00etan, Stage Liven.
- Bilbo** The Exploding Boys. Bihar, 20:30ean, Azkenan.
- Bilbo** Alex Wall. Bihar, 21:00etan, Cotton Cluben.
- Bilbo** Lowe Band. Bihar, 22:00etan, Kafe Antzokian.
- Bilbo** Lendaris Muertos. Bihar, 22:00etan, Santana 27n.
- Bilbo** *Soinu-postalak*. Bilboko Udal Musika Banda. Igandean, 12:00etan, Euskalduna jauregian.
- Bilbo** Alvaro de Luna. Igandean, 19:00etan, Kafe Antzokian.
- Bilbo** Ankor, Vukovi eta Farnhate. Igandean, 19:00etan, Stage Liven.
- Bilbo** Los 4. Igandean, 21:00etan, Santana 27n.
- Bilbo** Aiert Alberdi. Asteartean, 19:30ean, Biran.
- Bilbo** *Munduari begiratzeko*. Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal eta Mikel Valverde. Asteazkenean, 19:30ean, Arriaga antzokian.
- Bilbo** Dirty Honey. Asteazkenean, 20:30ean, Kafe Antzokian.



LORALDIA

## Munduari begiratzeko ikuskizuna, Bilbon

**BILBO**– Duela hogeitazurte pasa New Yorken jaiotako *Zaharregia, txikiegia agian* proiektuaren berrinterpretazio bat eskainiko dute Alphax, Rafa Rueda, Jon Cañaveras, Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin eta Mikel Valverde sortzaileek, *Munduari begiratzeko* emanaldiaren bitartez. Asteazkenean taularatuko dute, Loraldia jaialdiaren barruan, 19:30ean, Bilboko Arriaga antzokian. Argazkian, ezkerretik eskuinera, Uribe, Urdangarin, Bingen Mendizabal eta Rueda, artxiboko irudi batean.

- Bilbo** Neomak. Ostegunean, 19:30ean, Arriaga antzokian.
- Bilbo** Antuxuna. Ostegunean, 20:00etan, Biran.
- Bilbo** Irene Reig Trio. Ostegunean, 20:00etan, Jazzonen.
- Bilbo** Leihotikan. Ostegunean, 20:15ean, Kafe Antzokian.
- Bilbo** Inazio. Ostegunean, 21:00etan, Azkenan.
- Bilbo** Maren. Ostegunean, 21:30ean, Kafe Antzokian.
- Ermua** Marlena. Gaur, 20:30ean, Ermua antzokian.
- Getxo** *Desconcerto*. Orthemis Orkestra. Igandean, 18:00etan, Muxikebarrin.
- Lemoa** La Basu. Igandean, 13:30ean, herriko bentan.
- Urduliz** Indigo Blues. Bihar, 21:00etan, kultur etxean.

## ANTZERKIA

- Barakaldo** *Kuku*. Ezkutuan dauden emakumeak. Eidabe. Bihar, 18:00etan, Gurtzetako Gizarte Etxean.
- Barakaldo** *Señora Einstein*. Defondo konpainia. Bihar, 20:00etan, antzokian.
- Barakaldo** *¡Quinquilleros!* *Fábula para una taberna fantástica*. Sacartaris konpainia. Bihar eta etzi, 21:00etan, Arimaktore zine eta antzerki eskolan.
- Basauri** *Imbecil*. Alex O´Dogherthy. Gaur, 20:00etan, Social antzokian.
- Basauri** *Go!azen 10.0*. Igandean, 18:00etan, Social antzokian.
- Bedia** *Emakumea mundua aldatzen*. Elssie Xalbadorren ipuin kontaketa. Gaur, 17:30ean, plazan.
- Berriz** *Baginaren bakarriketak*. Txalo konpainia. Bihar, 19:00etan, Berrizko kultur etxean.
- Bilbo** *Love & Money*. Pabiloi 6 gazte konpainia. Igandera arte, 19:30ean, Pabiloi 6n.
- Bilbo** *Una habitación propia, de Virginia Woolf*. Clara Sanchis. Igandera arte, 17:30ean, Campos antzokian.
- Bilbo** *Love & Money*. Pabiloi 6 gazte konpainia. Bihartik astelehenera arte, 19:30ean, Pabiloi 6n.
- Bilbo** *Yerma*. Maria Goirizelaia. Bihar eta etzi, 19:30ean, BBK aretoan.
- Bilbo** *Guridi: Magical Bidaia*. Bihar eta etzi, 20:00etan, Arriaga antzokian.
- Bilbo** *Por primera vez*. La Coja produkzioak. Igandean, 18:00etan, Campos antzokian.
- Bilbo** *Dada ù lala eta Arma tiro pum*. Aitor Vinagret, Ane Gebara eta Josune Velez de Mendizabal. Igandean, 19:00etan, Fundicionen.
- Bilbo** *Artxibo biluzia*. Metrokoadro kolektiboa. Asteartean, 19:30ean, Arriaga antzokian.

- Bilbo** *El delta del Okavango*. Abubukaka. Ostegunean, 20:30ean, Campos antzokian.
- Durango** *Señora Einstein*. Defondo konpainia. Igandean, 19:00etan, San Agustín kulturgunean.
- Galdakao** *Bidaia on, amona Braulia*. Jazzbana Ensemble. Bihar, 12:00etan, Torrezabal kultur etxean.
- Galdakao** *Paisatges*. Igandean, 12:00etan, Torrezabal kultur etxean.
- Getxo** *Lo único que verdaderamente quise toda la vida es ser delgada*. Butacazero. Gaur, 19:30ean, Muxikebarrin.
- Igorre** *Kuku*. Ezkutuan dauden emakumeak. Eidabe. Gaur, 18:00etan, Lasarte aretoan.
- Igorre** *Todas las hembras que habito*. Amparo Nogues. Bihar, 21:00etan, kultur etxean.
- Leioa** *Mamut*. Markeliñe konpainia. Igandean, 18:00etan, Kultur Leioan.
- Lemoa** *20.000 legoa itsaspeko zaborretan*. Txalo konpainia. Bihar, 18:00etan, Kotxepin kultur etxean.
- Mungia** *Gure Kanoa*. Zurrunka taldea. Igandean, 18:00etan, Olalde aretoan.
- Portugalete** *Emakume guztien izena*. Martxoaren 23ra

arte, 19:00etan, Santa Clara kultur zentroan.

**Portugalete Zurezko eta burdinazko tainuak.** Trintxa zurlanketa elkarte. Martxoaren 15era arte, 18:00etan, Santa Clara kultur zentroan.

**Portugalete Nirekin jolastu nahi duzu?.** Ipuin kontaketa saioa. Gaur, 18:00etan, liburutegian.

**Sestao Victoria viene a cenar.** Pisando Escenario konpainia. Gaur, 19:30ean, musika eskolan.

**Sopela Burdinazko hegalek.** Bihar, 20:00etan, Kurtzio kultur etxean.

**Urduliz Piztu! EmakumeON energia.** Igandean, 17:30ean, kultur etxean.

**Zornotza Maria Blancoren bakkarrizketa.** Gaur, 23:15ean, Zelaletako kontzertu gelan.

## BERTSOLARITZA

**Lezama** Bertso jaialdia. Josune Aramendi, Oihana Bartra eta Ane Labaka Maioz. Igandean, 12:30ean, kultur aretoan.

## DANTZA

**Elorrio Aitzindariak.** Xaian Martinez eta Saioa Belarra. Bihar, 20:00etan, Arriola antzokian.

**Getxo Txalaparta.** Kukaire eta Jesus Rubio Gamo. Bihar, 19:30ean, Muxikebarrin.

## ERAKUSKETAK

**Bilbo Ni neu, Isis, Senora de todas las tierras.** Maiatzaren 19ra arte, Berreginen Museoan.

**Bilbo Nicolas de Lekuona dohaintza.** Martxoaren 15era arte, Arte Ederren Museoan.

**Bilbo The Artwork As a Living System.** Maiatzaren 26ra arte, Azkuna zentroan.

**Bilbo Ikusi eta Ikasi.** Maiatzaren 31ra arte, Barrutietako udalategian.

**Bilbo Giovanni Anselmo. Horizontetik haratago.** Maiatzaren 19ra arte, Guggenheim museoan.



BIZKAIKO HITZA

## Emakumeei omenaldia, 'Aitzindariak' ikuskizunarekin

**ELORRIO**– *Aitzindariak* dantza ikuskizunean askotariko emakumeak islatu dituzte, generoaren inguruko aurreiritziak hautsita. Omenaldi bat da: berdintasunaren aldeko borroka hasi zutenei, oraindik ere borrokan dabiltzanei eta irabazteko aukerarik izan ez zutenei. Xian Martinezek eta Saioa Belarrak sortutako ikuskizuna bihar taularatuko dute Elorrioko Arriola antzokian, 20:00etatik aurrera.

**Bilbo** *India andre-izana da.* Asun Martinez. Martxoaren 15era arte, Santutxuko udalategian.

**Bilbo** *Kamera martxan tratu onaren alde.* Bizitegi. Martxoaren 29ra arte, Otxarkoagako udalategian.

**Bilbo** *Sinboloak eta objektuak: Guggenheim Bildumako Pop Artea.* Irailaren 15era arte, Guggenheim museoan.

**Bilbo** *Metahaven: Kaosaren teoria.* Ekainaren 9ra arte, Guggenheim museoan.

**Bilbo** *Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoak.* Josune Aranguren. Asteazkenara arte, Abandoko udalategian.

**Bilbo** *Baskularra.* June Crespo. Ekainaren 9ra arte, Guggenheim museoan.

**Bilbo** *Kamera martxan tratu onaren alde.* Bizitegi. Martxoaren 15era arte, San Frantziskoko udalategian.

## HITZALDIAK

**Bilbo** *Hiria Lokatzetan.* Podcasta zuzenean. Miren Amuriza, Miren Narbaiza,

Ainara Lasa, Amagoia Gurrutxaga, Idurre Eskisabel, Lizar Begoña eta Lorea Agirre. Igandean, 12:30ean, Guggenheim museoan.

**Bilbo** *Euskara bihar (II) - Hiru eguneko gogoeta.* Jon Sarasua eta Xan Aire. Astelehenean, 19:30ean, Bira kulturgunean.

**Bilbo** *Artxibo biluzia.* Antzezlanaren inguruko solasaldia, Lorea Agirre. Asteartean, 18:30ean, Arriaga antzokian.

**Bilbo** *Ikustelegia. Munduari begiratzeko.* Ixiar Oreja. Asteazkenean, 18:30ean, Arriaga antzokian.

**Bilbo** *Ikusletegia: Neomak.* Agurtzane Intxaurraga. Ostegunean, 18:30ean, Arriaga antzokian.

**Durango** *Komikizale kluba. Black is beltza 2* komikiaren inguruan. Asteartean, 18:30ean, Bizenta Mogel liburutegian.

**Getxo** *Kiroletan txonbo!.* Iker Acero (surfa), Arrate Orueta eta Endika Guarrotxena (futbola), eta June Kortazar (dantza). Asteazkenean, 18:00etan, Algortako kultur etxean.

**Igorre** *Euskararen egoera gaur, zer diote datuek?.* Iñaki Iurrebaso. Asteazkenean, 19:00etan, kultur etxean.

## IKASTAROAK

**Durango** *Hiru artefaktu; hitzak irudietan, irudiak hitzetan.* Amaia Egidazu eta Miren Amuriza. Ostegunean, 18:30ean, Bizenta Mogel liburutegian.

**Ermua** *Agroekofeminismoa sutegi artean.* Bizitzaren jasangarritasuna sustatzeko tailerra. Asteazkenean arte, 18:00etan, Emakumeen Topalekuan.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

**Bilbo** *Mars Express.* Zinema eta Zientzia zikloa. Bihar, 19:00etan, Bizkaia aretoan.

**Sopela** *Bizkarsoro.* Ostegunean, 19:00etan, Kurtzio kultur etxean.



**EUSKAL HERRIKO KULTUR EKITALDIEN AGENDA**

[berria.eus/zerbitzuak/agenda](http://berria.eus/zerbitzuak/agenda)

## Turismoa, merkataritza eta ingurumena

Sukarrietako Txatxarramendi uharteak hainbat erabilera izan ditu: erromatarrek portu moduan erabiltzen zuten, eta, XIX. mendean, turistentzako lehen hotela ireki zuten han. Joan den mende bukaeratik, AZTI ikerketa zentroaren egoitzetako bat da.

### Ibai Maruri Bilbao

Bermeoko Izarok edo Lekeitioko Garritzek izen eta ospe handiagoa duten arren, Sukarrietako Txatxarramendi uharte ere Bizkaiko kostaldeko harribitxietako bat da. Urdaibaiko ikuspegi ederrenak inguratuta, makina bat turistari ostatu emandakoa da: 1896tik 1947ra Txatxarramendi hotela egon zen han.

XIX. mendean Busturialdera joandako lehen turistak Bermeora eta Mundakara joaten ziren, itsasoan bainatzera. Ondorioz, bainurako lekuak sortuz joan ziren eskualdean. Esaterako, 1848an bainuetxe bat ireki zuten Gautegiz Arteagan. Baina Txatxarramendiko hotela inauguratu izana mugarri bat izan zen. Hirurogei logela zituen, bakoitza bere komunarekin; hori ez zen ohikoa garai hartan. Luxuz beteriko lekua zen, areto handiekin. Bainuak hartzeko instalazioak zituen, eta Frantziako sukaldari batek gidatutako jatetxe ospetsua.

Bilbotik Sukarrietara bidaiatzeagatik eta jatetxeetan bazkalteagatik garaiko zazpi pezeta ordaindu behar izaten ziren. Beraz, ez zen edonorentzako lekua. Hotelari esker eraiki zuten Sukarrietarako trenbidea, eta, trenbideari esker, turismoa areagotu egin zen. Gorakada aprobeztatuta, 1919tik 1968ra bitartean Pako ostatua egon zen irlaren parean.

Itsaski haztegi bat ere eraiki zuten, Busturiko Itsasbegiko tren geltokiaren ondoan. Ostatuak atek itxi zituenetik, itsaski hazte-



### GORDAILUA

### Sukarrietako Txatxarramendi uharte

**Helbidea:** Txatxarramendi uhartea. Sukarrieta.

**Bisita:** Uhartea zabalik dago, eta zubia igarota edonoiz paseatu daiteke hango bideetatik artadiaren eta lorategi botanikoaren flora eta fauna ezagutu eta inguruko paisaiatz gozatzeko. Eraikina Aztirena da, eta ezin daiteke sartu.

giak okerrera egin zuen. 2002an, Urdaibaiko Galtzagorriak elkarrekin hura berreskuratzea erabaki zuen, eta Txatxarramendiko Itsas Gela da ordutik.

### Portua eta babeslekua

Uharteak 2,7 hektareako azalera du, eta zubi batek lotzen du lehorrekin. Ondo babestutako badia bat du ondoan: Portuondo. Hegoaldean, II. mendean ezarritako kabotaje postu erromatar baten aztarnak aurkitu dituzte. Izan ere, garai hartan Bermeon zuten portua, eta Foruan, herrixka. Itsasadarrean gora sakonera txikiagoa zenez, Portuondon lotzen



↑ Sukarrietako Txatxarramendi uharte eta artadia, lehorrekin lotzen duen zubitik ikusita, joan den domekako irudi batean. OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

← Aztiren egoitza, Sukarrietako Txatxarramendi uhartean. OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

↓ Txatxarramendiko itsaski haztegi izandakoa; Itsas Gela da egun. BIZKAIKO HITZA

zituzten itsasontzi handiak, eta txikiagoetan eroaten zuten karga Forura arte, eta alderantziz.

Joan den mende bukaeratik, Txatxarramendi hotela egondako lekuan AZTI ikerketa zentroaren egoitza dago. Itsasoari eta ingurumenari lotutako ikerketak egiten dituzte han. Leku paregabea dute horretarako; besteak beste, Urdaibaiko artadirik onenetakoa baitago uhartean. Gainera, irlaren jabe Bizkaiko Foru Aldundiak lorategi botaniko bat landatu zuen 2000. urtean, 25 espezierekin. ●